




BPGa %2,1 hazi zen bigarren hiruhilekoan

Euskadiko ekonomiaren hazkundera Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat

Eustatek argitaratutako hiruhileko kontuen aurrerapenaren arabera, **Euskadiko BPG %2,1 hazi zen 2026ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.** Urteko lehen hiruhilekoaren aldean, hazkundera %0,5ekoa izan zen. Enpleguak ere bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, urte arteko %1,3ko hazkundearekin.

Inflazioa %3,2an mantendu da ekainean

Euskadiko KPI indizea Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Inflazioa urte arteko %3,2an mantendu zen ekainean Euskadin. Azpiko inflazioa %2,8ra moteldu zen bitartean, energiaren garestitzeak (%6,3) hondar inflazioa gora bultzatu zuen, batez ere elektrizitatearen, eta gasaren igoeragatik, Gobernuak krisi energetikoaren eraginari eusteko onartutako aldi baterako laguntzak kendu ondoren.



Enpresen konfiantzak hobera egin du

Enpresen konfiantza
Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **euskal enpresen konfiantza hobetu egin zen 2026ko hirugarren hiruhilekoan**. Indizeak 137,2ko maila lortu zuen, eta batez besteko historikoa baino handiagoa izan zen. Era berean, datorren hiruhilekorako aurreikuspenak zertxobait hobetu ziren, eta argi eta garbi eremu positiboan jarraitzen dute.

Atzeritarren afiliazioa nabarmen igo da ekainean

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Atzeritarren kopurua



Iturria: Gizarte Segurantzza

Ekainean, Euskadin atzeritarren Gizarte Segurantzako afiliazioak urte arteko %12,6 hazi ziren, 114.000eko langa gaindituz eta serie osorako marka berri bat ezarriz. 2025eko maiatzean 100.000 afiliaturen muga gainditu ondoren, hazkundera etengabea izan da, eta bereziki bizkortu da otsailetik aurrera.